



ENPRESA MERKANTIL BAT SORTU BEHARKO DA BANDA ZABALAREN ZERBITZUA ESKAINI AHAL IZATEKO

Gartzaronen, Itsason eta Aizarotzen dagoeneko banda zabalaren azpiegitura instalaturik dagoen arren, Basaburuko Komunikazio Batzordeko kideek ezingo dute internet zerbitzuaren kudeaketa enpresa baten esku utzi. Biderka Aholkularitza Zerbitzuak egindako txostenaren arabera, horretarako merkataritza elkarte bat sortzea ezinbestekoa da. Eta horretan dabilta. Dagoeneko elkarte sortzeko estatutuen zirriborroa prest dago. Komunikazio Batzordeak estatutu horiek onartutakoan eta elkarte merkantila sortzen denean, operadore izaera lortzeko alta eman beharko da. Bestalde, 2018an Beramendin, Igoan eta Orokieta-Erbitin banda zabalaren azpiegitura instalatzeko proiektua Toki Inbertsioetako Planean sartu da.

SERÁ NECESARIO CREAR UNA EMPRESA MERCANTIL PARA PODER OFRECER EL SERVICIO DE BANDA ANCHA

La Comisión de Comunicación de Basaburua no podrá dejar la gestión del servicio de internet en manos de una empresa. Según el informe realizado por el Servicio de Asesoría Biderka, para poder empezar a dar servicio en Gartzaron, Itsaso y Aizarotz, donde ya está instalada la infraestructura de banda ancha, será necesario crear una sociedad mercantil. Una vez que la comisión apruebe los estatutos de la sociedad, tendrá que dar de alta como operadora.

BASABURUKO
UDAL BULETINA
Erredakzioa: Ametza



www.basaburua.eus
udala@basaburua.eus
948 50 30 35

2018KO TASA ETA ZERGETAN EZ DA IGOERARIK IZANEN, KONTZE-JUEKIN ADOSTUTAKO URAREN %2KO IGOERA SALBU

Uraren tasak %2 igo dira:

- Ur kontsumoa 0,265 €/m³
- Ur hornidura kuota: 19,38 euro (seihilabetekoa)
- Saneamendu kuota: 19,38 euro (seihilabeteko)
- Ur lotura: 258,14 euro.
- Hiri kontribuzioa: 0,227.
- EIOZ zerga %5.
- 1.150eko erakuslea ezarri JEZ zerga kobratzeko
- Lurren baloreen igoeraren zerga :
 - 1 eta 5 urte arteko balorearen igoerak
 - 5 eta 10 urte arteko balorearen igoerak: %3.2
 - 10 eta 15 urte arteko balorearen igoerak: %2.5
 - 15 eta 20urte arteko balorearen igoerak: %2.3
 - %20ko karga bakarra ezarri plus-balioa kobratzeko zerga-oinarri bezala.

NO HABRÁ SUBIDAS EN LAS TASAS E IMPUESTOS DEL 2018, SALVO EN LA TASA DEL AGUA QUE SUBIRA UN 2%

Las tasas del agua han subido un 2%:

- Consumo del agua 0,265 €/m³
- Cuota de abastecimiento de agua: Cuota de saneamiento: 19,38 € (semestral)
- Tasa de enganche: 258,14 €.
- Contribución territorial urbana: 0,227.
- Impuesto ICIO: 5%.
- Fijar el índice en 1.150 para cobrar el impuesto de IAE.
- Impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos:
 - Incrementos del valor del periodo de 1 a 5 años: %3.3
 - Incrementos del valor de 5 a 10 años: %3.2
 - Incrementos del valor de 10 a 15 años: %2.5
 - Incrementos del valor de 15 a 20 años: %2.3
 - Fijar en el 20% el tipo de gravamen único para cobrar la plusvalía como base del impuesto..

HIRIGINTZA TASAK / TASAS POR LICENCIAS URBANÍSTICAS:

- Obra baimenen tramitazioa /

Tramitación de las licencias de obra:

< 5000 aurrekontua / de presupuesto:	50,00 €
>5000<15000:	70,00 €
>15000<30000:	140,00 €
<30000<60000:	210,00 €
<60000<150000:	280,00 €
>150000<300000:	350,00 €
<300000<600000:	420,00 €

Eranskina, zuinketa akta eta kontsultak /

Archivo adjunto, acta de replanteo y consultas:

70,00 €

- Urbanizatu ezin den lurrean eraikitze baimena /

Licencia de construcción en parcelas no urbanizables:

105 €

- Sailkatutako jarduera baimena edo aitorten arduratsua /

Licencia de actividades clasificadas:

140 €

4D eranskineko jarduerak /

Actividades del anexo 4D:

172 €

Ikuskaritza bisitak / Visitas de Inspección:

365 €

- Lehen erabilera baimenak, obra bukaerak /

Licencias de primer uso, fin de obra:

230 €

- Irekiera baimena edo aitorten arduratsua /

Licencia de apertura:

245 €

4A, 4B eta 4C eranskinetako jarduera sailkatuak /

Actividades clasificadas de los anexos 4A, 4B y 4C:

443 €

4D eranskineko jarduerak / Actividades del anexo 4D:

260 €

Ikuskaritza bisitak / Visitas de inspección: :

365 €

Eranskina / Anexo:

70 €

- Lursailen zatiketa baimenak /

Licencias de división de parcelas:

205 €

- Ikerketa edo memoriatarako hirigintza kontsultak, xehe-tasun azterlanak eta reparzelazio proiektuak /

Consultas urbanísticas para investigaciones o memorias, estudios de detalle y proyectos de reparcelación:

210 €

- Udal Planaren aldaketa zehatzak / Modificaciones específicas del Plan Municipal:

245 €

- Hirigintza arauen aldaketa, plan partzialak /

Modificación de las normas urbanísticas, planes parciales:

315 €

- Bestelako informeak, alegazioak /

Otros informes, alegaciones:

175 €

JAUN SARASKO KIROLDEGIKO ARGIA ERABILTZEKO TASA / TASA PARA EL ALUMBRADO DEL POLIDEPORTIVO

- 2 euro/ordua) frontoiko argia erabiltzeko / 2 euros/hora para utilizar la luz del frontón.

- 3 euro/ordua kantxako argia erabiltzeko / 3 euros/hora para utilizar la luz de la cancha.

- 5 euro/ordua kiroldegi guztiko argia erabiltzeko (frontoia eta kantxa). / 5 euros/hora para utilizar la luz de todo el polideportivo (frontón y cancha).

EUSKARA ETA ADINDUEN JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Basaburuko Udalean bi diru-laguntza jaso berri ditugu. Alde batetik, Euskarabideak, udal esparruan euskara sustatzeko diru-laguntza onartu du eta 1.567,20 euro jasoko ditugu eta justifikatu gabe gelditu ziren 313,50 euroren ordainketa justifikatu gabe gelditu zirenak liberatu dituzte. Bestalde, adinduentzako yoga programarako diru-laguntza onartu da eta 2017 eta 2018 ikasturteetarako kopuru bera ezarri da, 256,41 euro.

SUBVENCIONES PARA IMPULSAR EL EUSKERA Y EL DEPORTE

En el Ayuntamiento recientemente hemos recibido dos subvenciones. Por un lado, Euskarabidea ha aprobado una subvención que asciende a 1.567,20 euros para la promoción del euskera y ha liberado el pago de 313,50 euros que quedaron sin justificar. Por otro lado, se ha aprobado una ayuda para el programa de yoga dirigido a personas mayores y se ha fijado una misma cuantía para los cursos 2017 y 2018, 256,41 euros.

ALKATE EBAZPENAK

- Berueteko etxebizitzaren teilatua eta fatxadak eraberritzeagatik diru-laguntza eskaera onartu zaio Lourdes Barberena Etxarriri.
- Arrarasko Etxaundiko bordan egindako obraren EIOZren behin betiko likidazioa onartu zaio Pilar Miqueo Miqueori.
- Berueteko etxebizitzako beheko solairuko obraren EIOZ eta tasen likidazioa onartu zaio Miguel Angel Tellechea Arangoari.
- Abenduaren 31n gaueko hamarretatik aurrera, Aizarozko herriko-etxeko goiko gela erabiltzeko baimena eman zaio Roberto Pascal Garcesiri.
- Ihabengo sareen eraberritze eta udal hodira lotzeko proiektua eta obra zuzendaritzaren asistentzia kontratua, 13.922 eurotan (BEZ barne) eslatu da Eunate Ingenieria enpresaren alde.
- Arrarasko Kastenea etxeko teilatua eraberritzeko obraren EIOZren eta tasen likidazioa onartu zaio M^a Teresa Elizalde Insaustiri.
- 78. Lursailetik 2.245,03 m² bereiztea eta metro horiek Gartzarongo 6. Poligonoko 9. Lursailari lotzeko baimena onartu zaie Legarra Iriarte anai-arrebei.
- Beramendiko UE2 unitatearen urbanizazioko obrak bukatzeko jarritako abala itzuliko zaio M^a Asuncion Apesteguia Nuini.
- Jaione Beunza Osacain izendatu dute Ttikienako zuzendari.

RESOLUCIONES DE ALCALDÍA

- Aprobada la solicitud de subvención por renovar el tejado y la fachada de la vivienda de Beruete a favor de Lourdes Barberena.
- Aprobada la liquidación definitiva del ICIO por la obra realizada en la borda Etxaundi de Arraras de Pilar Miqueo Miqueo.
- Aprobada la liquidación del ICIO y de las tasas por las obras a realizaren la planta baja de la vivienda de Beruete a favor de Miguel Angel Tellechea Arangoa.
- Permiso para que Roberto Pascal Garcesi pueda utilizar el cuarto de la casa concejal de Aizarotz el día 31 de diciembre.
- Adjudicado el proyecto para la renovación de las redes de Ihaben y la anexión a la tubería municipal y el contrato de asistencia y dirección de obra que asciende a 13.922 euros (IVA incluido) a favor de la empresa Eunate Ingeniería.
- Se ha aprobado la liquidación del ICIO y las tasas por la obra de rehabilitación del tejado de la casa Kastenea de Arraras, a favor de M^a Teresa Elizalde Insausti.
- Se ha concedido permiso para separar 2.245,03 m² de la parcela 78 y unir esos metros a la parcela 9 de Gartzaron, a favor de los hermanos Legarra Iriarte.
- A M^a Asunción Apesteguía Nuin se le devolverá el aval puesto para finalizar la obra de la urbanización de la unidad UE2 de Beramendi.

TORTURAREN INGURUKO MOZIOA

Basaburuko Udalean torturaren inguruko mozioa onartu berri dugu. Besteak beste tortura kasuak ikertzeko eta azalertzeko beharra agertzen dugu eta tortura pairatu duten herritarrei elkartasuna eta babesa azaltzen diegu. Era berean, egia, aitortza eta erreparazioarako daukaten eskubidean laguntzeko bere prestutasuna agertzen dugu.

SE HA APROBADO LA MOCIÓN SOBRE TORTURA

En el Ayuntamiento hemos aprobado recientemente la moción sobre tortura que recoge entre otras cuestiones, la necesidad de investigar y dar a conocer los casos de tortura y expresar nuestra solidaridad a las vecinas y vecinos que han sufrido tortura. Asimismo, mostramos el compromiso de ayudar en el derecho a la verdad, al reconocimiento y a la reparación.

GABEZIAK OSASUN ETXEAN

Gurean, tarteka eta egun solte batzuetan baino ez da pediatria zerbitzua eskaintzen, horregatik, Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak eskualdean pediatria zerbitzua eskaintzeko eskaera egin dio Nafarroako Gobernuari. Horrez gain, Udalean mediku eta pediatra horiek euskaldunak izan daitezela ere eskatzen dugu eta horretarako mozio bat onartu berri dugu. Nafarroako Gobernuari, udalaren izenean, Osasunbidean euskarazko profileko lanpostuak lehenbailehen zehaztu eta ondoren behar diren deialdiak egin ditzala eskatu zaio.

CARENCIAS EN EL CENTRO DE SALUD

La Mancomunidad de Servicios Sociales de la zona ha solicitado al Gobierno de Navarra que se ofrezca el servicio de pediatría, ya que no se ofrece ese servicio con una continuidad. Por otro lado, en el Ayuntamiento, además de apoyar esa solicitud, también pedimos que los/as trabajadores/as de nuestro centro de salud sean euskaldunes.



AURKI AKTAK WEBGUNEAN
ESKURAGARRI
www.basaburua.org

"GURE BENETAKO ERRONKA HERRIA DENON ARTEAN ANTOLATU ETA SUSPERTZEA DA"

Igor Arroyo, barañainarra da sortzez, baina zazpi urte dira Aizarotzen bizi dela. Herritar asko bezala, Aizarozko Kontzejua sortzearen aldeko da. 180 biztanle ditu Aizarotzek, horietatik 60 hemezortzi urtetik beherakoak. Herrian erabakia hartua dute dagoeneko eta hasiak dira Aizarotz Kontzeju izateko lehenengo pausuak ematen.

Zergatik erabaki duzue Aizarotz Kontzeju izateko eskaera egitea? Zein onura ekarriko ditu horrek?

Jende askok pentsatzen du mugarri bat beharrezkoa dela herria biziberritzeko, eta Kontzejua sortzeko prozesua izan liteke mugarri hori. Herriari begira, herritarrak ordezkatuko dituen egitura autonomo bat izango genuke. Ibarriari begira, Aizarotz Basaburuako gainerako herrien maila berean kokatuko litzateke.

Zeintzuk izan dira orain arte eman dituzuen pausuak?

Hiru herri-batzar egin ditugu, Udalarekin ere bildu gara eta auzokideen sinadurak jaso ditugu Kontzejua sor dadin eskatuz.

Eta ondoren, zeintzuk dira eman beharreko urratsak?

Basaburuako Udalak bere iritzia eman eta Nafarroako Gobernuak erabaki behar du Kontzejuari bide ematen dion ala ez. Orain arte hitz egindakoaren arabera, instituzio bien borondatea horren aldekoa da. Baina kontzejua formalki sortzeaz harago, benetako erronka Herria denon artean antolatu eta suspertzzea da.

Herrian eztabaida sortu du gaiak? Nolakoa izan da herritarrekin egin duzuen lanketa?

Eztabaida egon da, bai herri batzarretan baita kalean ere. Herriko elkarbizitza eta antolaketaren inguruko iritzirik desberdinak daude. Badira ere Kontzejuak ekarriko lukeenaren inguruko zalantzak eta beldurrak. Herritarren gehiengo batek babestu du Kontzejua sortzeko proposamena, baina esan bezala, une honetan, herritar guztiak aintzat hartuko dituen egitasmoa eraikitzea da gakoa.

Bilakaera onartzekotan, kontzejua bera sortzeko eta lanerako prest dagoen jendea beharko da. Herritarrak gogoz ikusten dituzu?

Aizarotzen beti egon da hainbat eta hainbat herritar auzolanerako prest. Esango nuke lan handia egin dela herria sortu zenetik. Eta Kontzejuaren sorrera akuilu izan daiteke herria eraikitzeko ilusioa indartu eta antolakuntza propioaren moduak berritzeko orduan.

"NUUESTRO VERDADERO RETO ES ORGANIZAR Y REVIVIR EL PUEBLO ENTRE TODOS Y TODAS"

Igor Arroyo es nacido en Barañain, pero lleva ya siete años viviendo en Aizarotz. Arroyo es uno de los vecinos y vecinas que apoya el proyecto de crear el Concejo de Aizarotz. En el pueblo ya lo tienen decidido y han comenzado a dar los primeros pasos.

¿Por qué habéis decidido presentar la solicitud para que Aizarotz sea Concejo?

Muchas personas piensan que es necesario un hito para revivir el pueblo y este proceso puede ser el hito. Con el Concejo tendríamos una estructura autónoma que represente a todos los vecinos y vecinas. Y respecto al valle, Aizarotz estaría al mismo nivel que los demás pueblos de Basaburu.

¿Cuáles han sido los pasos que habéis dado hasta ahora?

Hemos realizado tres juntas, nos hemos reunido un par de veces con el Ayuntamiento y hemos recogido firmas en el pueblo, solicitando la creación del Concejo.

¿Y ahora?

Según lo hablado hasta ahora, tanto la voluntad del ayuntamiento, como la del Gobierno de Navarra está a nuestro favor. Pero más allá de crear el Concejo, nuestro verdadero reto es organizar y revivir el pueblo entre todos y todas.

"KONTZEJUA-
REN SORRERA
AKUILU IZAN DAITEKE
HERRIA ERAIKITZEKO ILUSIOA
INDARTZEKO ORDUAN"

"EL CONCEJO PUEDE SER UN
EMPUJÓN A LA HORA DE
REVIVIR LA ILUSIÓN
PARA CONSTRUIR EL
PUEBLO"

